

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

2014ko atzerriko turisten gastua % 20 igo da Nafarroan, 178 milioi euroraino

Foru Komunitateko turismoko hitzordu nagusia den Navartur-en irekieran jakin da datu hori; bertan izan da Barcina Lehendakaria azoka inauguratzen

Viernes, 20 de febrero de 2015

Nafarroan gauraldia egindako atzerriko turisten gastua % 19,6 igo da 2014an, eta 178 milioi euroraino iritsi da. Espainian izandako igoera handiena da, Estatuko batez bestekoaren gainetik oso (% 6,5). Nafarroan ostatu hartutako 258.064 turista atzerritar bakoitzak 679 euroko batez besteko gastua egin zuen bidaiako, 2013an baino % 3,8 gehiago, eta 114 euroko batez besteko gastua pertsonako eta eguneko, aurreko urtean baino % 5,7 gehiago.



Barcina Lehendakaria Navartur-en irekierakitaldian hitz egiten.

Datu horiek [Navartur](#)-en hamargarren edizioaren inaugurazio-ekitaldian jakin dira. Foru Komunitateko turismo-ekitaldi nagusia da, eta bertan izan da Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina. Barcinak azpimarratu duenez, Nafarroako turismo-sektoreak "errekor guztiak" apurtu ditu 2014an, ia 1,2 milioi bisitarirekin. Estatuko turismoa igo egin zen, % 7,4, baina nazioartekoa batez ere, % 13,7.

Azoka Iruñeko Baluarte jauregian egingo da asteburu guztian, [VI. Landaturismoko Nazioarteko Kongresu](#)arekin batera. 90 erakusmahai inguruk Estatuko eta nazioarteko 500 helmuga baino gehiagori buruzko informazioa banatuko dute, eta gastronomiako dastatzeak, ardo-dastatzeak, musika-emanaldiak, jokoak eta aurkezpenak izango dira bertan. 3 euroko sarrera ordaindu behar da.

Inaugurazio-ekitaldia gaur eguerdian egin da Nafarroako stand-ean, eta bertan izan dira: Barcina Lehendakaria; Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin; Iruñeko Enplegu, Merkataritza eta Industriako zinegotzi María

Caballero; Navartur-eko zuzendari Luis Cortés; eta Kadizko diputatu Inmaculada Olivero, Andaluziako probintziaren izenean, azokako hamargarren edizio honetan Kadiz hautatu baita helmuga gonbidatu.

2014ko Nafarroako turismoa

Behin betiko datuak eskuetan izanik, Nafarroako turismo-sektoreak 2014. urtea bidaiari eta gaualdien errekor berriarekin amaitu zuen. Zehazki, turismoko ostatuak 1.199.020 bisitari hartu zituzten eta 2.482.639 gau fakturatu, hau da, bidaiarien % 8,9 igo da, eta gaualdiak, % 6,8, 2013arekin alderatuz. Espainiako igoera handienetakoa da, Madrilgo eta Gaztela-Mantxako komunitateen atzetik bakarrik.

Hoteletan bidaiarien % 75 izan zen (901.159 pertsona); kanpinetan, % 11 (136.464 bisitari); landetxetan, % 9 (106.142 bidaiari); eta turismoko apartamentuetan, % 5 (52.255 pertsona).

Batez beste 2,1 gau igaro zuten, aurreko urtean bezala gutxi gorabehera: 1,8 gau hoteletan; 2,6 landetxetan, 2,8 kanpinetan eta 3,1 turismo-apartamentuetan.

Jatorriari erreparatuz, bidaiarien % 75 Espainian bizi zen: EAEn (% 15,6), Katalunian (% 12,8); Madrilan (% 11,6), eta Nafarroan (% 9,5); % 25, berriz, atzerrian, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan bereziki (% 17,9). Aurreko urtearekin alderatuz, Estatuko turismoa igo egin zen, % 7,4 zehazki, baina atzerrikoa bereziki (% 13,7).

Turistak hartzeko, Nafarroak 956 establezimendu izan zituen batez beste, eta 29.114 plaza hilean; horrekin batera, 15.750 langile Gizarte Segurantzaren alta emanda, 2013an baino % 2,8 gehiago.

Informazio-eskaerari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Turismoaren [webguneak](#) 2.095.076 bisita jaso zituen azaroan, aurreko urtean baino % 1gehiago, eta turismo-bulegoek 347.313 bidaiari hartu zituzten, 2013an baino % 18,2 gehiago.

Azkenik, turismoko baliabide bisitatuenak (monitorizatuta dauden datuen artean) ondorengoak izan dira: Erriberriko Jauregia (bisita guztien % 33,5), Bertizko Jaurerria (% 16,7), Xabierko Gaztelua (% 15,5) eta Iruñeko katedrala (% 14,3); Guztira, Foru Komunitateko monitorizatutako baliabideetan 454.668 sarrera izan ziren, 2013an baino % 5,1 gehiago. Orreagan beren egiaztapena zigilatutako erromes-kopurua ere igo egin zen (% 2,8): 65.683, guztira.

Lehen argazkiaren oina: Yolanda Barcina bertaratutakoei hitz egiten, Inmaculada Olivero eta Juan Luis Sánchez de Muniáin alboan dituela.

Bigarren argazkiaren oina: lehen planoan (ezkerretik eskuinera), Luis Cortes, Inmaculada Olivero eta Yolanda Barcina; atzean, María Caballero eta Juan Luis Sánchez de Muniáin.



Agintariak Navartur-eko erakusmahai bat bisitatu.